

OSTEGUNA

2022/05/26
10. urtea, 1.607. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85 €

Ibon Garaiburu lehiatuko da pentatloian

Banakako euskal pentatloia kanporaketa jokatu da larunbatean, Tolosako zezen plazan // 7

«Inpunitateak hitz gakoa izaten jarraitzen du»

KEPA FERNANDEZ DE LARRINOA
ANTROPOLOGOA

Gladys del Estalen memoria ikertuz egindako lana liburuan bildu dute; Alkizan eta Anoetan aurkeztuko dute // 4



IBANURDAPILLETA

«Behobia-Donostia ikusi ostean hasi nintzen korrika»

ENERITZ IRAOLA KORRIKALARIA

Gasteizko Martin Fiz Maratoia irabazi berri du bidaniarrak; duela hamar urte hasi zen korrika, eta maratoi erdiak eginak baditu ere, lehen aldiz parte hartu du maratoi batean; oso pozik dago, bere buruan ez baitzegoen lehen postuetan amaitzea // 6

Hodei Arrastoak 'Zarata' audiogida aurkeztuko du

LGTBI+ kolektiboaren inguruko hamar istorio kontatzen dituen lana, Plazida Otaño liburutegian estreinatuko du larunbatean // 5

Kultur eskaintzaz gozatzeko aukera zabala Elduainen

Herrian mugimendua sortzeko helburuz ari dira kulturaldia egiten; emakumeen topaketak, dantza edota ikastaroak izango dituzte // 2



Lopez Mendizabal, 1, Tolosa



Herrian mugimendua sortzeko ekitaldi sorta antolatu dute

Elduainen udaberriko kultur eskaintzaz gozatzen ari dira; emakumeen topaketekin hasi dira, eta horrez gain, hainbat ikastaro antolatu dituzte

Eneritz Maiz Etxarri Elduain

Elduainen maiatzaren 6an eman zioten hasiera kultur eskaintzari Emakumeen Topaketaren lehen saioarekin. Kultur arteko batasuna topaketa izan zuten, eta guztira lau topaketa egingo dituzte kulturaldian zehar. Topaketez gain, bada bestelako ekitaldirik ere. Agurtzane Belaunzaran da kultur dinamizatzailea eta herrian mugimendua sortzea guztientzako moduko ekitaldiak antolatzeko delako helburua esan du.

Lehen ekitaldiarekin «ezusteko polita» izan zutela ekarri du gogora Belaunzaranek: «Uste baino emakume gehiago etorri ziren». Berrobin bizi den Esther Poveda izan zuten gidari eta ekialdeko dantzez aritu ziren. Beste hiru topaketa geratzen zaizkie, eta horiek ere erantzun ona izatea espero du, eta inguruko herrietatik gerturatu nahi izanez gero ere, atek zabalik dituztela Elduainen esan du Belaunzaranek.

Bigarrenean, esaterako, euskaraz eta txineraz irakurriko dute ipuin bat eta horretarako gonbidatu txinatar bat izango dute. Topaketa ondo borobiltzeko jatekoa baliatuko dute, eta Asiako gastronomia probatuko dute. Hirugarren topaketarako sexualitatean aditua den gonbidatua izango dute, eta sexualitateaz eta autoezagutzaz ariko dira: «Adin txikietatik hasi eta hil bitarte, sexualitateak ez baitu adinik». Ipuin erotiko bat kontatuko zaie bertaratzen direnei, eta bukatzeko merienda «gozo-gozo eta pikante-pikante bat» egingo dutela aurreratu du.

IKASTAROAK ERE BAI

Iaz egin zuten patinaje ikastaroa, eta erantzun «oso ona» izan zuela adierazi du: «Inguruko herrietatik ere etorri ziren gaztetxoak patinatzen ikastera, eta guretzat hori sorpresa izan zen». Aurten errepikatzea erabaki dute, eta gazte zein helduei zuzenduta



Ostiralean estreinatu zuen Katuska taldeak 'Armiarma' obra, Elduainen. ATARIA

dago. Lau eguneko iraupena izango du.

Xilografia ikastaroarekin berri sormena jarri nahi dute martxan. Oihana Ugarte izango da irakaslea, eta antzinako teknika ikasteko aukera izango dute. «Bost ordutan ezin da gauza handirik egin, baina xilografia-ekin lehen harremana izan eta zer den ikusteko aukera izango da», kontatu du Belaunzaranek.

Kimua dantza taldeak Elduain ere bisitatuko du *genEroa* ikuskitunarekin: «Emanaldi polita izateaz aparte, mezu askokoa da», dio antolatzaileak.

Horiez gain helduentzako gimnastika eta pilates klaseak jarri dituzte martxan, eta guztira 20 pertsona dituzte apuntatuta. «Horrek esan nahi du bazegoela beharra mugitzeko, elkartzeko eta barre egiteko ere».

UDABERRI KULTURALDIA

Hilak 27, ostirala

18:00–20:00. Emakumeen Topaketak II. Nü Shu: Txinako emakumeen antzinako idazkera sekretua. Kultur etxean.

Ekainak 3, ostirala

18:00–20:00. Emakumeen Topaketa III. Sexualitatea emakumeengan (autoezagutza edozein adinetan). Doan izango da kultur etxean eta izena maiatzaren 31 baino lehen eman beharko da.

Ekainak 11, larunbata

18:00. Dantza emanaldia Kimua dantza kolektiboaren eskutik: *genEroa*, plazan.

Ekainak 17, ostirala

18:00–20:00. Emakumeen Topaketa IV. Emakumea eta natura: sua,

ura, itsasoa eta haizea. Doan izango da kultur etxean, eta izena ekainaren 15a baino lehen eman beharko da.

Ekainak 13, 14, 16 eta 17

16:15–17:15. Patinaje ikastaroa izango da, eta interesatuek izena ekainaren 8a baino lehen eman beharko dute. 15 euro ordaindu beharko da.

Ekainak 4 eta 11

10:00–12:30. Xilografia ikastaroa (lino lea gainea) egingo dute Intzenen. Izena emateko azken eguna ekainaren 1a izango da. 16 urtetik gorakoei zuzendua da, eta 30 euroko kostua izango du.

Oharra. Izen emateak udaletxean egin beharko dira edota Whatsapp bidez 663 143 187 telefono zenbakian.

Haurrei eta gazteei begirako eskaintza zabalak, prest

Udalekuei esker Amezketa, Alegia, Ibarra, Lizartza eta Villabonako haur eta gazteek uztaila ondo pasatzeko baliatu dezakete; begirale izan nahi dutenek ere badute aukera

E. Maiz

Eskualdeko herri gehienetan udara begira haurrei eta gazteei begirako eskaintza ezberdinak antolatzen ari dira. Tartean daude Alegia, Amezketa, Ibarra, Lizartza eta Villabona.

Amezketako Udalak udaleku irekiak ekainaren 27tik uztailaren 22ra antolatuko ditu. Izena eman ahal izango dute bi urtetik hasi eta Lehen Hezkuntzako 6. maila arteko haurrek. Izena emateko epea hilaren 31 arte izango da, eta epea kanpoko inskripzioerik ez dute onartuko. Izena emateko *Amezketak.eus* webgunean lortu daitekeen inskripzio fitxa bete beharko da, eta udaletxera eraman edo *gazteria@amezketa.eus* helbide elektronikora bidali beharko da.

Alegiako Udalak haurrentzako eta nerabeentzako jardura ezberdinak eskainiko ditu uztailaren 1etik 14ra eta uztailaren 18tik 29ra. Udaleku parte hartzaileak berrikuntza dira Alegian. Uztailaren 4tik 22ra eskainiko dira astearte eta ostegun goizetan. Izena emateko bi modu egongo dira: *Alegia.eus* webgunea baliatuz *Udalekuak* atalean sartuta edo kultur etxean bertan. Bihar amaitzen da izena emateko epea.

Villabonan LH5 eta LH6 arteko gaztetxoentzat udalekuak antolatu ditu udaleko Gazteria sailak. Uztailaren 4tik 22ra izango da Gaztelekuan, 09:00etatik

13:00ak arte. Jardura desberdinez disfrutatzeko aukera izango dute. Interesatuek udaletxeko Herriarren Arreta Zerbitzuan eman beharko dute izena, eta gaur dute azken eguna.

Lizartzan 2019-2012 urteetan jaietakoei zuzendutako udaleku irekiak antolatu dituzte, uztailaren 1ean hasi eta 29ra bitarte. 10:00etatik 13:00etara izango da, eta aurretik ordubeteko zaintza zerbitzua ere izango dute. Izena udaletxean edo liburategian eman beharko dute, eta bihar bukatzen da epea.

Ibarrako Gaztelekua ere bere ohiko eskaintzara itzuli da pandemia atzean utzita, eta irteerak eta lo egitera joateko aukerak prestatu ditu haur eta nerabeentzat. Zehazki, 2005. urtean jaio direnetatik hasi eta 2011. urtera bitartekoei zuzendutako eskaintza da. Hilaren 31n zabalduko dute irteeretan parte hartu nahi dutenek izena emateko epea, eta ekainaren 9a bitarte izango da apuntatzeko aukera. Getariara edo Senperera egingo dituzte irteerak, eta lotara Amezketako Buruntzunzinera edo Arbizuko kanpinera joango dira.

BEGIRALEEI DEIA

Alegiako Udalak uztailaren zehar haurrei begirako ekimenak egingo ditu, eta begirale modura aritzeko jendea kontratatuko du. Begirale lanetan aritzeko interesa dutenek biharkoa izango dute curriculumak aurkezteko azken eguna; *kultura@alegia.eus* helbidera bidali edo kultur etxean entregatu beharko dituzte.

Amezketaren kasuan, udaleku irekiak antolatuko ditu aurten udalak, eta aurrera eraman ahal izateko lehiaketa bidez aukeratu dituzte begiraleak eta koordinatzaileak. Horiez gain, bi pertsona bertan praktikak egiteko aukera izango dute. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 30ean bukatuko da.

Ariguneak izango dira Euskaraldiaren aurtengo edizioko protagonista

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo dute ariketa sozialaren hirugarren aldia, 'Hitzez ekiteko garaia' lelopean; jada zabaldu dute entitateek izena emateko epea

Josu Artutxa Dorronsoro

Belarriprest eta Ahobiziek batera, ariguneak izango dira aurtengo Euskaraldiko protagonistak. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo dute ariketa sozialaren hirugarren aldia, eta 22. Korrikako *Hitzeekin* leloari jarraipena emanez, *Hitzez ekiteko garaia* izango da aurtengo leloa. Jada zabalik dago entitateen izen-emate epea; izan ere, 2020an bezala, entitateek parte hartu ahal izango dute ariguneak sortuz eta euskaraz «lasai» ari zeko guneak bermatuz.

Ariguneak identifikatzen, sortzen eta areagotzen jarraitzea da, hain zuzen ere, antolatzaileen helburua. Aurreko aldietako balorazioetan ikusi dute euskara erabiltzeko «gune babestuak» izateak erabilera errazten duela, eta, horrekin batera, hizkuntza ohiturak aldatzen eta euskarazko praktika linguistikoak areagotzen laguntzen dutela; horregatik, izena emateko proposamena egin diete enpresa, erakunde, elkarte, klub, talde eta era guztietako entitate antolatuei. Gaineratu dutenez, aurten izen-emate prozesua «erraztu» dute.

Antolatzaileen arabera, aurreko aldiaren entitateek izan zituzten esperientziak eta lorpenak beste batzuentzat baliagarri izan



2020ko edizioan, Zizurkilgo Joxe Arregi plazan egindako ekitaldi bat. J. MIRANDA

daitezke, eta, horregatik, esperientzia horiek zabaltzeko ahalegina egingo dutela azaldu dute. Izan ere, Euskaraldiarekin gizartearen aldaketa bat eragin nahi dute; hizkuntza praktikatan eragin nahi dute, hain zuzen. Hori lortzeko, entitate eta herritarrei proposatu diete euren buruei «erronka konkrituak» jartzeko, euskararen erabilera areagotzeko eta hizkuntza ohituretan aldaketak egiteko.

Egitasmoan parte hartzen duten norbanako zein entitateei hizkuntza ohituretan eragiteko tresnak eskaintzea izango da «lehentasunetako bat». Aurten, kalea hartzeko, gizarte aktibazioa handitzeko eta euskararen era-

bilera zabaltzeko aukera izango dute herritarrek. Jakinarazi dutenez, herritar norbanakoek irailaren 28tik aurrera izango dute ahobizi edo belarriprest roletan izena emateko aukera.

2021EAN, ZORTZITIK BATEK

Kaleko erabileraren zortzigarren neurketaren emaitzak argitaratu ditu Soziolinguistika Klusterrak, eta orokorrean ez da nabari gorabeherarik. 2016tik hona, beherakada eten egin da, baina ez irauli. %12,6k egiten dute euskaraz kalean, zortzi lagunetik batek; horietatik gehienak haurrak eta gazteak dira. Halaber, eremu euskaldunenetako beherakada berretsi du neurketak.



«Herritar gehiagorengana heldu eta ariketa barneratzea lortu nahi dugu»

**KIKE AMONARRIZ
EUSKALTZALEEN
TOPAGUNEKO
LEHENDAKARIA**

Asier Imaz Tolosa

Larunbatean, Gazte Euskaltzaleen Sareak deituta Donostian egin zen mobilizazioak izandako erantzunarekin «pozik» agertu da. Euskaraldiari buruz eta ikus-entzunezkoen legeari buruz ere hitz egin dugu berarekin.

Zein balorazio egiten duzu 'Euskara Aurrera' lelopean egin zen manifestazioaz?

Erantzun ona izan zuen eta berrikuntza ugari ekarri ditu; be-launaldi berri batek deitutako ekintza izan zen, eta oso albiste ona da hori. Pandemiaren ondoren, berraktibazio bat gertatu da. Korrika jendetsu eta indartsua izan dugu, eta Nafarroako dekretuaren aurkako mobilizazioan nahiz Herri Urrats jaialdian ere euskaltzale ugari bildu ziren. Euskaraz bizitzeko herri gogoia aktibo eta indartsu dago, eta pandemiak ez du kaltetu. Akaso, pixka bat ahuldu zuen euskararen aldeko mugimendua, baina berreskuratzen ari gara. Hori

zen, hain zuzen, gure lehentasun handiena.

Nolako izango da aurtengo Euskaraldia?

Azken edizioan, harremanak mugatuta zeuden, eta entitate asko itxita; egin zen baldintzetan egiteko, sekulakoa izan zen. Aurtengo edizioak ere garrantzia berezia izango du; segida eman behar dio lehen aipaturako aktibazio prozesu horri. Aurrekoak bezain masiboak izatea lortu behar dugu, Arigune ugari erakartzea lortuz, eta ariketa aurrekoan baino modu egokiagoan burutuz, baita intentsitate altuagoarekin ere. Euskaraldiaren edizio berrian, ariketa bera indartzea ere izango da gure asmoa.

Nola lortuko duzue hori?

Parte hartzea sustatuz, hizkuntza aldaketak eta hizkuntzei eusteko prozedurak eta mekanismoak gizarteratuz eta ahalik eta gehien eta modu egokienean zabalduz. Alderdi kualitatiboari garrantzia berezia emango zaio; herritar gehiagorengana heldu eta ariketa modu sakonagoan barneratzea lortu nahi dugu.

Ikus-entzunezkoen legeari dagokionez, proposamen bat egin zenuten, Pantailak Euskaraz, Euskalgintzaren Kontseilua, Tokikom eta Hekimen elkarteekin batera.

Euskararen gutxieneko presentzia arautzeko proposamena da. Gure hizkuntzaren biziberritze prozesuan ikus-entzunezko lanek garrantzia handia dute. Lege hau urte askotarako onartuko da eta eragin handia izango du hizkuntzen erabileran; gaztelania ez diren hizkuntzen erabilerari ematen zaion bermearen arabera, euskarazko eskaintza handiagoa edo txikiagoa izango da. Aurreikuspenen eta eskuartean ditugun datuen arabera, urratsak emango diren arren, gure eskaeren azpitik geldituko da legea, ez duelako hizkuntza guztien berdintasuna bermatuko.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu



J.M.

«Gladys del Estalen memoriaren zati bat preso geratu da»

KEPA FERNANDEZ DE LARRINOA
ANTROPOLOGOA

Gladys del Estal ekintzaile ekologistaren inguruko memoria ikertuz egindako lana liburu batean eman du orain Fernandez de Larrinoa buru duen taldeak; bihar aurkeztuko dute Alkizan eta astelehenean Anoetan

Jon Miranda

Lera taldeko burua da Alkizan bizi den Kepa Fernandez de Larrinoa (Bilbo, 1958). Ikerketa-ekintza egiten dute eta orain Gladys del Estalen inguruan egin duten lanak maila ezberdinetan ondorioak ekartzea nahi lukete. **Nondusorburualiburuhonek?**

Azkeneko hiru urteotan, Lera Mugarik Gabeko Antropologoak taldean, estatuaren bortizkeria

politikoaren biktimen oroitzapena aztertzen aritu gara. Ikertutako kasuetako bat Gladys del Estalena izan da. Txosten bat egin genuen Nafarroako Elkarbizitza departamendurako eta txostena berriatzi eta egokitu dugu, irakurleak hobeto irakurri eta gaiak identifika ditzan. Gogora institutuak laguntza eman zigun argitalpen hau egiteko eta horri esker liburuak kalean dago.

Tuteran erail zuten Del Estal 1979ko ekainaren 3an.

Bai. Egun hartan nazioarteko festa moduko bat zegoen deituta, eguzkiaren bueltako festa antinuklearra zen. Euskadiko talde ekologistek Tuterara joateko deialdia egin zuten. Del Estal donostiarraren eta lagunekin batera joan zen jaialdi horretara. Ospatzekoa zen festa alai eta baketsuak sarraskia izaten amaitu zuen. Guardia zibil batek bertatik bertara tiroa bota zion Del Estali. Hilketaren hotsa zabaldu ahala, mobilizazio ugari izan zen Euskal Herri osoan. Gizartearen haserre handia sortu zuen hilketak.

Gertakizun horiek gaur egun nola gogoratzen diren jaso duzue liburuan?

Ez bakarrik hori. Bizi zen artean nolako pertsona zen aztertu dugu. Hil zuteneko momentu horiek nola gogoratzen diren ikertu dugu eta horretarako hemerote kan arakatzen ibili gara eta garai horretan atera ziren komunikatu andana jaso dugu liburuan. Baina

guzti horrekin batera, aztertu dugu nola oroitzen dugun gaur egun Gladys del Estal. Memoria instituzionala, gizarte memoria eta memoria familiarra bereizi ditugu liburuan, gauzak hobeto kokatzearren. Oroitzapen eta ahanzturaren mekanismo kulturalak eta sozialak dira publikazio honetan ageri direnak.

Bat al datozen memoria instituzionala, gizarte memoria eta familiarrena?

Estatu indarkeriaren biktimak izan zen Del Estal. Instituzioen eta gizartearen memoria ez datoz bat. Memoria mekanismoek argi itzalak dituzte. Fokua alde batean jartzen da eta beste alde batzuk itzalpean geratzen dira. Del Estalen memoriaren zati bat preso geratu da urte hauetan, politikak bahituta, eta batez ere instituzio politikoek egindakoagatik. Errekonozimendu falta hori hor dago. Ahaztuta eta baztertuta geratu da, estatu indarkeriaren beste biktima asko bezala.

Mugimendu ekologistan sinbolo bat bezala gogoratzen da Gladys del Estal?

Bi memoria toki publiko egon dira nagusiki Del Estal gogoratzeko. Bata Tuteran, Ebro ibaiaren gainean dagoen zubian, hil zuten tokian. Plaka batzuk badira han eta jendea biltzen da urtero bertan lore eskaintza egiteko. Tesuinguru antimilitarista nahikoa indartsua da Tuteran, ekologista ere bai, baina ekainaren 3an egin duten ekitaldi horrek badu kutsu antimilitarista. Gero Donostian badago beste memoria toki garrantzitsu bat, Cristina Enea parkea, errituak Gladys Enea parkea bihurtzen dena Del Estalen heriotzaren urtemugaren bueltan. Urtero, oroitzapen ekitaldi bat burutzen du Eguzki talde ekologistak parkearen gainaldean jarrita dagoen bere omenezko hilarrian. Talde ekologistek eskatu izan dute parkeari behin betiko izena aldatzeko, baina eskabidea bere horretan geratu izan da. Hala ere, jende askok Gladys Enea bezala izendatzen du parkea oraindik ere. 2009an, Urumea pasealekuk parkera doan oinezkoentzako pasabideari bere izena jarri zioten.

Memoria toki gehiago ez du Del Estalek?

Memoria familiarra eta memoria instituzionalari begiratuta badaude beste bi memoria toki. Polloeko hilerrian eman zioten lur Del Estali eta hura da familiaren memoria tokia. Guk ikerketarako memoria familiarra jasotzerako orduan ikusi dugu ateak ez daudela zabalik. Gurasoak hilak ditu Del Estalek eta anaia nekatuta

dago aspalditik kontu guzti hauekin. Gu memoriaren parte horretan ez gara sartu, gauza intimoa da eta errespetatu beharra dago. Bestalde, instituzionala, EHUKo Informatika fakultateko batzar aretoari Gladys del Estal izena jarri zioten 2019an eta berriki bere izena daraman sari bat ere sortu dute.

Izan ere, informatika ikasketekin zituen Del Estalek.

Bai eta aitzindaria izan zen mundu horretan. Jende askok ez du ezagutzen bere arlo hori eta ondo dago argitara ekartzea. Baina itzal-argiak sortzen dira hemen ere. Informatika fakultatean sortu diren memoria toki eta sariaren izendapenarekin gogoratzen dena da emakume honen bizitza, baina ez nola hil zen eta hil eta gero nola tratatu izan zuten. Pertsona argia eta langilea zela bai, baina ingurugiro hezkuntzan zuen trebakuntza, irakasle bezala gazteekin egin zuen lana, berekin batera zeraman mezu sozial hori ez da gogoratzen. Memoria instituzionalak badu hutsune hori.

Oraindik ere pausoak eman behar dira memoria berreskuratzeko norabidean?

Bai. Egia, justizia eta erreparazioa hitzak oso garrantzitsuak dira. Eman beharreko pausoak ez daude emanda eta inpunitateak hitz gakoa izaten jarraitzen du.

Gauregungo errealtateak hobeto ulertzeko balio du memoria ariketa honek?

Pentsa, gaur egun energiaren gaiak nolako gaurkotasuna duen. Argindarraren eta gasaren prezioei begiratu besterik ez dago. Errekurtso naturalen erabilpena eta kapitalismoaren barruan errekurtso horren kudeaketa puri-puri dauden eztabaidak dira. Edo zer esanik ez antimilitarismoari dagokionez; badatoz berriro ere karga armamentistikoa eta arma nuklearren beldur horiek. Ahaztuta zeuden gaiak ziren aspaldi eta Del Estal hil zuten garaian eztabaida horiek kalean zeuden, eguneroko borroketan. Duela 40 urte gizartearen erantzuten zitzairen horrelako egoerei, gaur egungo gizartearen ez dirudi horrelako erantzukizunik dagoenik.

Nola egingo duzue liburuen zabalkundea?

Gure asmoa da Tolosaldeko liburutegietan ale bana uztea. Aurkezpen txikiak eta gai honen aitzakian tertuliak egiteko asmoa dugu. Solasaldi horietan liburua eskuratzeko aukera egongo da. Gu prest gaude horretarako. Alkizan bihar 18:30ean egingo dugu Fagus Alkizan, eta Anoetan, astelehenean, ordu berean, udal liburutegian.

Entzuteak ikusteak baino garrantzia gehiago

‘Zarata’ izeneko audiogida estreinatuko du, larunbat honetan, Zizurkilen, Hodei Arrastoa aktore eta sortzaileak

Irati Saizar Artola

Proposamen artistiko berritzaile batekin dator Hodei Arrastoa aktore eta sortzaile zizurkildarra bere jaioterrira. *Zarata* izeneko audiogida estreinatuko du, larunbatean, Zizurkilgo Plazida Otaño liburutegian.

LGBTI+ kolektiboaren inguruko audiogida bat sortu du, eta bertaratzen denak, bere mugikorra eta aurikularrak eraman beharko ditu, horrela, audio bat entzunez, ibilbide bat egiteko aukera izango du espazio baten barrena. 16:00etan zabalduko dituzte liburutegiko ateak eta 19:00ak bitarte izango da espazioa zabalik. Tarte horretan, liburutegira edozein momentutan sartu ahalko dela esan du Arrastoa: «Bakarka entzuteko audio bat da, QR kode bidez entzun daitekeena, beraz, aretoa zabalik dagoen edozein momentutan egin ahalko da entzumenean oinarritutako ibilbidea, bakoitzak bere erritmoan».

Euskaraz zein gaztelaniaz, bi hizkuntzatan prestatu du 40 minutu inguru irauten duena audioa. «Audioan kolektiboaren inguruko hamar istorio ezberdin kontatzen dira eta liburutegian zehar, hamar guneez berdin kokatuko ditut; zona bakoitzean estimulu bisualen batekin egingo du topo entzuleak, eta istorio hori eremu horretan entzuteko jarraibideak izango ditu. Horrela, liburutegian zehar ibilbide bat osatuko du».

Ikusteko elementu batzuk egongo diren arren, entzumena-

ri eman dio lehentasuna: «Museo batera goazenean, artelanak ikus ditzakegu, eta audiogidek informazio gehigarria ematen digute. Kasu honetan, ordea, alderantziz gertatzen da, esan nahi dudana belarrira esango zaio entzuleari, audio bidez, eta horri gehituko zaion informazioa izango da ikusiko dena».

Hamar istorio, eta, bakoitza, kolektiboaren parte diren bederatzi euskal aktoreen eta musikari baten ahotsetik kontatua izango da. Proiektuaren ahotsak dira Telmo Irureta, Luix Mitxeleena, Nahia Sillero, Xanti Agirrezabala, Sambou Diaby, Maider Lasa, Kimetz Renteria, Garazi Urkola, Irene Mujika eta Asier Rikarte. Soinu teknikaria Jon Fernandez da eta diseinatzaile grafikoa Aharon Ferradas.

BAKARKAKO ESPERIENTZIA

«Espirientzia indibiduala denez, audioak zuzenean entzuleari zuzenduta daude, pertsona bakoitzari, zuri», aurreratu du zizurkildarrak. «Goxo eta lasai kontatuko dizu istorio bat, edo agian zuk egiten duzuna kritikatu du, edota galdera zuzen ba-

LGBTI+ kolektiboaren inguruko hamar istorio kontatzen dira entzunezkoan, hamar artistak kontatuta

Bakarkako esperientzia da, bakoitzaren mugikor bidez, liburutegian zehar entzutekoa



Hodei Arrastoa aktore eta sortzaile zizurkildarra, 'Zarata' proiektua estreinatuko duen liburutegi aurrean, Zizurkilen. I.S.A.

tzuk egingo dizkizu zuk erantzun ditzazun, tonu bokatibo eta tarteka akusatibo batean». Entzulea «deseroso» sentitu daiteke momenturen batean, «baina prozesuaren parte izan daiteke, edo kuestionatu egin beharko du zergatik sentitzen den horrela». Hausnartzeko esperientzia bat izango dela ziurtatu du Arrastoa.

AUTOHORNIKUNTZARAKO

Urtebete inguru darama Arrastoa *Zarata* proiektua prestatzen. «Gure ofizioak jarraikotasun falta dauka eta nire arloan lanean jarraitu ahal izateko erabaki nuen proiektu hau sortzea». Zer produktu sortu nahi zuen pentsatu aurretik, zer pieza artistikok eman ahal zion diru pixka bat pentsatu zuen: «Horrela esanda ematen du diruzalea naitzela, baina, diruaz ari naizenean, ez naiz aberatsa izateaz ari, prekariatetik ihes egiteko moduaz baizik». Oinarri horretatik abiatu du proiektua eta ondorenean etorri da pieza.

Bera aktorea izanik, orain arte lan eszenikoak egin izan ditu, eta zerbait berria da berarentzat ere audiogida bat sortzea: «Pentsatu nuen, audio bat sortuta, eszenan inork ez zuela egon beharko, be-

raz, pertsona horiei ez zitzaiera ordaindu beharko». Arrastoa berak idatzi du gidoia, berak sortu ditu hamar istorioak, ondoren, beste batzuek grabatu badiutze ere. «Nik niretzat sortutako proiektua da, autohornikuntzarako».

Zarata izenarekin, LGBTI+ kolektiboak egin behar duen zarata bera islatu nahi izan du, «kolektiboak berak ikusgarritasun hori irabazteko». Horrez gain, hitz joko ere egiten du: zara-ta, «zarena zarelako».

Hiruki Larroxa kooperatibaren kolaborazioa eta laguntza izan du lanak. Aholkularitza eskaini die, besteak beste, kolekti-

boaren inguruko hizkuntzarekin lagunduz. «*Zarata* bezalako bidaia indibidual batean, kemena eta babes emozionala ere eman dizkirate Hiruki Larroxoako lagunek, eta oso eskertuta nago», aitortu du.

Ekaina harrotasunaren hila-betea izanik, bezpera aprobetxatuko du Arrastoa *Zarata* sortuntza proiektua plazaratzeko. Sarrerak 3 euroko kostua izango du, eta aurrez erosi ahalko dira Zizurkilgo udal bulegoetan.

Aurrera begira ere baditu data batzuk lotuta. Ekainaren 10ean Beasainen izango da eta ekainaren 29an Iruran. Data gehiago lotzen ari dela kontatu du.



zozketak

Atarikideentzat **dortsal bat** dugu



12. Emakumezkoen Triatloia
300m igerian / 8km bizikletan / 2km korrika

Ekainak 25, larunbata
15:00etan • Donostia

Antolatzailea:
Atletico San Sebastian.

Zozketetan parte hartzeko **osteguneko 11:00ak arte 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

Imanol Garcia Landa

Bidania-Goiatz

Gasteizko Martin Fiz Maratoia irabazi zuen Eneritz Iraola (Bidania-Goiatz, 1992) korrikalariak, maiatzaren hasieran. Ez zuen espero lorpena bidaniarrak, ez baitzen horren bila joan, besteak beste, bere lehen maratoia zelako. Korrika egiten jarraitzeko asmoa du, baina oraingoz ez du asmorik beste maratoi batean parte hartzeko.

Egiten duzun lehen maratoia, eta irabazi. Ez da ohikoa.

Bai, aurrenekoa zen eta emaitzarekin oso gustura geratu nintzen. Nire helburua bukatzea zen, eta ahal zela hiru ordu eta erditik jaistea, baina gehienbat ondo bukatzea eta sentsazio onekin. Nire buruan ez zegoen aurreneko postuetan ibiltzea.

Proba bera nola izan zen?

Ibilbidearen aldetik oso polita izan zen, oso giro ona zegoen, eta jende asko animatzen. 42 kilometro direnez, azkenean etapa ezberdinetatik pasatzen zara.

Noiz jabetu zinen lehen postuan zeundela?

21. kilometroan esan zidaten bigarren nindoala. Gero, 28 eta 30 kilometro inguruetan, ez dakit zehazki, neska bat pasa zen, eta aurreneko emakumearekin zihoan bizikleta nirekin jarri zen, beraz, hor banekien aurrenekoa nindoala.

Eta une horretan nola sentitu zinen?

Oraindik banekien karrerako parte handi bat falta zela, gogorrena, eta nire buruari esan nion lasai hartzeko, eta horrela joan nintzen. Azken bi kilometroetan bai esaten niola nire buruari ezin nuela geratu, bukaera zelako. Hor bai urduriago nengoela, ez bainekien bigarrena zenbatera zetorren.

Maratoia proba gogorra da.**Nola sentitu zinen orokorrean?**

Hasieran lasai hartu nuen. Gehienez asfaltoan 34 kilometro nituen eginda. Jendeak esaten zidan 35etik 42rainoko zatia oso gogorra zela, eta horretara oso ondo ailegatu behar nuela. Neurtzen joan nintzen eta azken hiru kilometroak-edo gogorrak izan ziren: hanketako mina, badakizu iristen ari zarela baina oraindik falta da, eta psikologikoki azken kilometro horiek luzeak egin zitzaizkidan. Bestela, oso ondo: oso ibilbide polita izan zen, eta erraz pasa zitzaidan denbora. Oso laua zen ibilbidea; tartean bazeuden aldapa txiki batzuk, baina nahiko laua zen. 21. kilometroan kaletik pasatzen gi-



ATARIA

«Nire buruan ez zegoen aurreneko postuetan ibiltzea»

ENERITZ IRAOLA KORRIKALARIA

Parte hartu duen lehen maratolian irabazi egin du bidaniarrak; «iritsi eta ez nuen sinesten; uste dut pixka bat shock egoeran nengoela», esan du helmugako unea gogora ekartzean

nen, eta hor animo pila bat jaso genituen.

Eta, irabazterakoan, nola sentitu zinen?

Sekulakoa izan zen unea. Azkenean arkuetan sartzerakoan, posible ote zen galdetzen nion nire buruari. Iritsi eta ez nuen sinesten; gero ere kosta egin zitzaidan, uste dut pixka bat shock egoeran nengoela.

Norbaiti eskaini zenion garai-pena? Ingurukoak joan zitzaizkizun animatzera?

Etapa honetan lagundu didaten guztiei: etxekoei, lagunak, entrenatzaileak... Eta batik bat Andoni, Alaz eta Oiairi. Goizean goizetik sekulako babesa izan nuen eta eman zidaten indar guztiarekin askoz errazagoa izan zen 42 kilometro horiek egitea.

Egindako denbora zer iruditu zitzaizun?

Lehen maratoia izanik ez nuen

erreferentziarik. Hiru ordu eta erditik jaitsi nahi nuen, baina ez nekien nola erantzungo zidan gorputzak. Orduan, esan dudana, nire helburua ondo bukatzea zen, sentsazio onekin. Erlojua begiratzen joan nintzen, baina gehiegi obsesionatu gabe. Bukeraren gehiago begiratu nion eta iritsi nintzenean, denbora ikustean oso gustura geratu nintzen.

Zein izan zen zure denbora zehatza?

Kronometroak 3.20.57 markatu zuen, baina gu pixka bat beranduago abiatu ginen, eta 3.19.54 jarri zidan.

Lehenengo maratolian, nahi zenuen denbora eta lehen postua. Ezin hobeto, beraz.

Bai, noski. Denbora hori ez zegoen nire buruan, ezta postua ere. Beraz, oso gustura.

Nolatan animatu zinen maratoi bat egitera?

Aurreko urtean maratoi erdi pare bat egin nituen, eta oso ondo sentitu nintzen. Abenduan esaten zidaten ea zergatik ez nuen maratoi bat egiten. Beti ematen zidan inbidia, baina banekien distantzia luzea zela. Azkenean egitea pentsatu nuen eta hasi nintzen begiratzen, eta maiatzean Gasteizkoa zegoela ikusi nuen eta bi aldiz pentsatu gabe izena eman nuen.

Noiztik zabilta korrika egiten?

Korrika egiten orain hamar bat urte hasi nintzen. Behobia-Donostia lasterketa ikustera joan ginen, hurrengo urtean egitea proposatu nion nire buruari eta horrela hasi nintzen korrika, eta orain arte.

Prestaketak nola egin zenituen?

Entrenatzaile bat hartu nuen, Ordiziako Sasoian. Beraiei buruz gauza onak entzun nituen eta banekien maratoi bat nire kabuz ez nuela prestatuko. Ez nekien nola hasi behar nuen. Beraiekin jarri nintzen kontaktuan, eta entrenatzaileak eraman du prestaketa guztia.

Entrenamenduak nola egin zenituen? Bidania inguruan errepide nagusia edo mendi bideak dituzu...

Entrenatzaileak segituan esan

zidan hemen inguruan distantzia luzeak korrika egiteko zaila zegoela, aldapa asko daudelako. Beraz, entrenamendu guztiak Tolosan edo Azpeitian egin ditut.

Fisikoki entrenatzeaz gain, buru aldetik ere entrenatu behar da?

Bai. Entrenatzailea pixkana joaten zaizu distantziak luzatzen. Bakarrik ibili naiz korrika entre-

«Hilabete askotako entrenamendua da, gogorra da, eta ez dut buruan oraingoz besterik egitea»

natzen urtariletik aurrera. 34 kilometrokoa izan zen nire entrenamendu luzeena eta bakarrik egin nuen. Ohituta nengoen bakarrik korrika egitera, eta maratolian bakarrik joatea ez zitzaidan gogorra egin. Entrenamendu luze bat egiten lehengusu batek lagundu zidan, baina bestela beste denak bakarrik egin nituen.

Orain maratoi bat irabazi duzula, aurrera begira horrelako lasterketetan parte hartu nahi duzu?

Ez dut asmorik. Nire helburua aurreko maratoi egitea zen eta egin dut. Besterik ez dut oraingoz planteatzen. Hilabete askotako entrenamendua da, gogorra da, ordu asko direlako, neke handia, eta oraingoz ez dut buruan besterik egitea. Agian distantzia motzeko lasterketaren bat egingo dut, eta aurreko agian Behobia-Donostia egingo dut.

Aurretik parte hartu izan duzu Behobia-Donostia lasterketan.

Zazpi egin ditut, eta egia da oso lasterketa polita dela. Inoiz egin ez duen norbaiti esango nioke behin egiteko. Aurreko egiten ez badut, ziurrenik gero damutu egingo naiz, beraz uste dut egiten bukatuko dudala.

Eta lasterketa motzagoak, hamar kilometro ingurukoak?

Bai, horrelakoak asko izaten dira eta bat edo beste egingo dudala pentsatzen dut.

Beraz, ez zaizu korrika egiteko gogorik kendu.

Maratoia egin eta hurrengo astean ez nuen ia korrika egin, baina gogoia ez zait joan.

Mendi lasterketetan parte hartzeko asmorik baduzu?

Orain dela hiru urte probatu nuen T2T proba, eta oso gustura egin nuen. Baina mendira joateak alferkeria gehiago ematen dit. Ez dut baztertzeko besteren bat egitea, agian udara aldera, baina asfalto gehiago gustatzen zait.

Herriartekoan, Amezketak eta Tolosak aurrera

Erredakzioa

Eskualdeko lau herri ari ziren parte hartzen Herriarteko Pilota Txapelketako eskuzko modalitatean, eta horietatik Amezketak eta Tolosak egin dute aurrera. Beraz, Amasa-Villabonari eta Alegiari aurtengo ibilbidea bukatu zaie. Kanporaketa osoa kontuan hartuta, Amezketak 4-2 irabazi zion Oñatiri eta Tolosak ere 4-2 Zestoari. Bere aldetik, Amasa-Villabonak 0-6 galdu du Ataunen aurka, eta Alegiak 2-4 Andoainen kontra.

Final-laurdenetan, Amezketak Oiartzun izango du aurkari. Joaneko partidak Amezketako Larrunarri frontoian jokatu

dituzte, bihar, 18:00etan hasita. Tolosak Azkoitiaren aurka jokatu du, eta joaneko jardunaldia Azkoitiko Gurea frontoian jokatu da, bihar, 22:00etatik aurrera.

TOLOSA, GOMAZKO PALETAN

Final-laurdenetako lehen jardunaldia jokatu dute gomazko paletako modalitatean. Tolosa Hernaniren aurka ari da lehian eta joaneko jardunaldian 2-1 galdu zuen asteburuan. Zehazki, banaka 20-18 galdu zuen, binaka 18-20 irabazi, eta banaka zazpi koardoren barruan, 20-13 galdu. Itzulerako jardunaldia larunbatean izango da, 09:30ean hasita, Beotibar frontoian.

Intxurre Pilota Eskolan izena emateko aukera

PILOTA // 2022-2023 ikasturteari begira, Intxurre Pilota Eskolak izen emateko epea zabalduko du eta horregatik datorren astean informazio bilera antolatu dute, pilota eskolaren funtzionamenduaren berri emateko. Bilera ekainaren lehen izango da, 18:00etan. Batez ere pilota eskolan izena eman nahi duten ikasle berriei zuzendua dago, hau da, 2011, 2010 eta 2009an jaiotakoentzat. Bilerara joateko interesa dutenek, udakopelotaescola2021@gmail.com-era idatz dezakete, bai izena emateko eta baita inolako konpromisorik gabe edozein informazio jakiteko edo zalantza argitzeko.

Miren Larrarte finalerako sailkatu da Erasunekin batera

BIDANIA-GOIAITZ // Nafarroako Foru Komunitatea Torneorako finalerako sailkatu da Miren Larrarte pilotari bidaniarra. Elite mailan jokatzen ari da, binaka pilota mistoarekin, Erasun bikote duela. Finalerdietan Barrokak eta Mendizabal bikoari 16-22 irabazi zioten Erasun eta Larrartek, eta ekainaren Sean Nafarroa Arenako hitzordu nagusirako lehen txartela lortu zuten.

TAKEk Udarako Saskibaloi Campusa antolatu du

TOLOSA // TAKE saskibaloi klubak Udarako Saskibaloi Campusa antolatu du. Guztira hiru txanda egingo dituzte: ekainak 27-uztailak 1, uztailak 4-8 eta uztailak 11-15. Bi maila prestatu dituzte: 2011-2014 urteetan jaiotakoek 09:30etik 17:00etara izango dute ordutegia, bazkaria barne; astea 165 euro izango da, eta bi aste edo etxeko bi partaide 295 euro; 2007-2010 urteetan jaiotakoak, 10:00etatik 14:00etara, eta astea 60 euro izango da. Izena eman nahi duenak Takesb.eus helbidean sartu behar du. Klubetik azaldu dutenez, parte hartzaileen kopurua mugatua izango da.

Euskal Ligara igotzeko finala jokatu du Tolosalak

TOLOSA // Areto futboleko gizonen Gipuzkoako lehen mailan jokatzen du TEEP Tolosalak, eta asteburuan Euskal Ligara igotzeko aukera izango du. Horretarako IDK Pari Berri Donibane taldearen aurka izango duen finala irabazi beharko du talde tolosarrak. Larunbatean, 19:15etik aurrera izango da partida hori, Andoango Allurralde kiroldegian.

Banakako pentatloi txapelketaren lehen kanporaketa, Tolosan

Zezen plazan izango da jokoan, larunbatean, 18:00etan hasita; Ibon Garaiburu berastegiarrak parte hartuko du

I. Garcia Landa


Berastegi/Tolosa

Abian jarriko da larunbatean V. Gizonen Euskal Pentatloi Saria. Lehen kanporaketa izango da jokoan, Tolosako zezen plazan, 18:00etan hasita. Hamahiru kirolari ariko dira lehian, tartean Ibon Garaiburu berastegiarrak. Beste parte hartzaileak ondorengoak izango dira: Xabier Zaldua, Ioritz Gisasola *Zelai V.a*, Aratz Mugertza, Aitzol Atutxa, Haritz Goenaga, Jokin Urretabizkaia, Mikel Agirre, Joseba Arakama, Gorka Etxeberria, Iñigo Landa, Jagoba Otaegi eta Oussman Dramé. Patxi Mindegia ere parte hartzekoa zen, baina ezin izango du egon lesio batengatik. Sarrearak 20 euro balioko ditu.

Bost proba egin beharko dituzte kirolariek: 100 kiloko bolari zortzi jasoaldi eman, giza proban plaza bat egin, aizkoran kanaerdiko bat moztu, txingekin hiru plaza egin eta korrika kilometro bat. Lau kirolari azkarrenak pasako dira bigarren kanporaketara, eta hori irailaren 3an egingo da.

Ibon Garaibururentzat lehen parte hartzea izango da euskal pentatloian: «Betidanik gustatu izan zait proba hori, libre nengola ikusi nuen, eta parte hartzea pentsatu nuen». Ez du bere burua ikusten lehen lau postuetan sartzeko berastegiarrak: «Ez dut denbora asko izan entrenatzeko. Otsailean hasi nintzen harriarekin, eta uste baino azkarrago iritsi zaigu kanporaketa. Lan txukun bat egiteko esperantzarekin goaz eta hori egiten badugu pozik egongo gara». Hurrengo kanporaketa pasatzeko faborito moduan Zaldua, Zelai V.a eta Mugertza ikusten ditu, baina ez du oso garbi zein izango den laugarrena.

Herri kirolean aizkoran hasi zen Garaiburu, eta kirol horretan moldatuko da ondoen larunbateko saioan. Zailtasun handiena harria altxatzen izango duela azaldu du. «Hori lasai eta txukun



Tolosako kanporaketan parte hartuko duten pentatloilariak. JOSEBA URRETABIZKAIA

egiten badugu, besteetan joko dugu jo behar dena». Batez ere harriarekin entrenatu da, eta beste kirolei ez die hainbesteko garrantzirik eman prestaketan. Bestalde, giza probakoa entrenatu duenean nahiko gustura gertatu dela dio. «Txingekin indarra behar izaten da eta korrika ez dirudi asko egin behar denik, baina aurreko guztia egin ondoren kontuan hartzekoa da». Garaiburuk Eneko Saralegi izango du laguntzaile moduan: «Eskarmen-tua du eta asko laguntzen du horrelako norbait izatea proba horretan».

GIPUZKOAKOARI BEGIRA

2017an hasi zen aizkoran, herriko festetarako saioa prestatzeko asmoz. «Gustatu egin zitzaidan, eta segitzea pentsatu nuen», esan du berastegiarrak. 2019an apustu txiki bat hitzartu zuen eta 2020an egin zuen eta hortik aurrera jarraitu egin du aizkorarekin. Hain justu, 2021ean Urrezko Binakako Aizkolarien Txapelketa irabazi zuen, Xuban Kañamarekin batera, 23 urtez azpiko mailan. Aurrera begira, ekainaren 26an egingo den bigarren mailako Gipuzkoako Txapelketaren kanporaketa du begiz jota, eta bertan aurrera egitea du helburu.



Ibon Garaiburu. JOSEBA URRETABIZKAIA

**BILLABONA FKE**
Arratzain Futbol Zelaia

INFANTIL TXIKIA
Larunbata 28, 11:00etan
BILLABONA F.K.E.
ALOÑA MENDI K.E.

PREFERENTEA
Ilgandea 29, 11:00etan
BILLABONA F.K.E.
GURE TXOKOA K.K.E.

 Billabona Fke



OSTEGUNA, 2022KO MAIATZAK 26
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baiarain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 26

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Pilotakadek batzen gaituzte Behar Zana elkartearen 75. urteurreneko erakusketaren inaugurazioa, 17:30ean Gurean.
Berastegi. Bingoko sari berezia, Gaztainondo elkartearen, 18:00etan.
Berastegi. Kirmen Uriberen *Izurde-en aurreko bizitza*, irakurle taldearen, liburutegian, 18:00etan.
Ibarra. Garagardo Festaren hasiera, 18:00etan, plazan.
Larraul. Bidea Ipar Iker Karreraren liburuen aurkezpena, 19:00etan.
Tolosa. Euskal emakume idazleen irakurketa feminista, liburutegian, 18:00etan.
Tolosa. Gaur egungo elikadura errealitateak agroekologiarantz mahai ingurua, Zerkausian, 18:30ean.
Tolosa. Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldearen bilera, 19:30ean.
Tolosa. *El faro* filma, Leidorren, 20:30ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
15:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebraidea. Arrosa sareko irratien artean eginiko magazina.
20:00. Musikasi. Musika klasiko.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
09:30. Gaurkoan Tolosaldeko
15:00. Elkarriketap
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
19:30. Tolosako Udaleko Osoko Bilakura zuzenean

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Pintxo-Pote (Unai Ugarte-mendia)

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Altxatzen joango da pixkana. Goizean oraindik hodei asko eta euri langar pixka bat izango dugu. Arratsaldean zehar atertu eta ostarte batzuk irekitzen joango dira, eguna giro argiagoarekin amaituko dugularik. Ipar-mendebaldeko haize ahularen eraginpean jarraituko dugu eta tenperatura zertxobait igoko da, 17-19 graduan joz goia.

Bihar. Antzeko eguraldia. Goizean hodei asko izango da zeruan eta oraindik tarteka euri langar pixka bat egingo du. Egurditik aurrera atertu eta arratsaldean zehar ostarte batzuk zabalduko dira. Ipar-haizeak joko du eta tenperatura igo egingo da, 20-22 graduan joko duelarik goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Hegaztien pasabide naturala aldarrikatuz

Ainhua Goenaga artistak Ur Mara museoan jarrita zituen habiak Hernio Gazumen jarri ditu, «kontzientzia sortzeko asmoz»

Asier Imaz

Aurtengo Sormenaren Kabia Bekaren deialdiaren aurkezpen ekitaldian parte hartu zuen Ainhua Goenaga artistak. Iaz aurkeztu zuen bere proiektua, eta nahiz eta hautatuen artean ez egon, harremana egin du Ur Mara museoaren kideekin eta Slow Art egunean parte hartu zuen. Hala, Sormenaren Kabia bekaren testuinguruan habien inguruan egin dituen lanak erakutsi ditu museoaren negutegian. Bada, habia horiek Hernio Gazumen kokatu ditu asteburuan, ehiza postuetan, hegaztien pasabide naturala den lekuan, «kontzientzia sortzeko asmoz».

Ezaguna du inguru hori Goenagak, Aian jaioa eta hazia baita, Herniora begira. «Migrazio garaian gaudenez egokia iruditu zait keinu txiki bat egitea, elkarbizitza baterako espazioa utzi behar dugula aldarrikatuz», esan du.

Habiak «sormenaren adierazpen goren» direla dio artistak, eta bio-eraikuntza gisa ikusten ditu. «Oso material gutxiarekin sekulako eraikuntzak egiten dituzte txoriek, otargintza teknikaaren modukoa erabiliz, guztia sare-tuz, eta ikaskuntza handia dago hor». Txorien moduan, lekuko baliabideak aprobetxatuz



Ainhua Goenaga habiak kokatzen. ATARIA

osatu ditu habiak, goroldioa, belarra, palmondoen edo artile ilea... «beraiek egiten duten arte-lana irudikatuz edo kopiatuz».

Ingurugiroari begirako artea lantzen duela azaldu du. Azken boladan habiekin ari da lanean, baina, denetarik egiten du, buztina edota zuntz begetala bezala-

ko material ezberdinekin. Duela urte batzuk ezagutu zuela Koldobika Jauregi kontatu du; «gizakia, natura eta artea lotuz duen Ur Mara proiektua aurkeztu zidan. Ni ere oso oso identifikatuta sentitzen naiz ideia horrekin, eta lankidetzak egiten ditugu tarte-ka».



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 LEAKTIBAI Coasteering irteera

Lagun batentzako tokia

Irteera eguna:
2022ko uztailaren 9a
Kostako haitzetan
zehar ibilaldia
(Gutxieneko adina: 12 urte)

www.leaktibai.eus
688 82 67 97 • LEKEITIO

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 BBK Karpin Abentura FAUNAREN BABES ZENTRUA

Lagun birentzako
bina sarrera

KARRANTZA
626 622 245
infokarpin@gmail.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 EKAINBERRI museoa: Kobazuloak + esperientziak

Bi lagunentzako
sarrera bikoitza

ZESTOA
943 86 88 11
info@ekainberri.com
www.ekainberri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **943 09 06 08** telefono zenbakira edo sartu **Ataria.eus** webgunean • Parte hartu aste honetako asteartetik osteguneko 11:00ak arte. Saridunak ostira leian argitaratuko ditugu.